



BOGA,  
TXAKUR HEGALARIA

Karlos Santisteban

*Eider Santistebanen marrazkiak*

Desclée De Brouwer





Nire txakurra ezagutu  
nahi duzu? **Boga** du izena.  
Paseatzera eramaten dudanean  
sarritan egiten didate galdera:  
"Zer izen du txakurrak?"



**"Boga, gure familian bosgarrena delako", erantzuten dut.**



Txakur-jabeek ez didate inoiz  
nire izenaz galdetzen. Nik  
ere hainbat txakur izen dakit:  
Luky, Beltza, Txulo, Sandokan,  
Laia, Pepa... Baina jabeenik ez.  
Jakin nahi baduzu, Libe naiz.



Hasieran, Boga izena entzundakoan, jende askok esaten zuen: "A, Humphrey Bogart!". Nik ez nekien nor zen Humphrey hori. Orain badakit.

